

**San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa SA erakunderako INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO AGENTEAREN Lan-Poltza sortzeko hautaketa prozesuaren baldintzak 2024ko ekainetik urrira bitarteko enplegu egonkorraren gorabeherak sortutako aldi baterako langile-beharrak betetzeko.**

#### **LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

---

Hautaketa prozesu honen xedea da SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA erakunderako INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO AGENTEAREN Lan-Poltza sortzea 2024ko ekainetik urrira bitarteko enplegu egonkorraren gorabeherak sortutako aldi baterako langile-beharrak betetzeko. Sozietate publiko horren xedea da Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzea, garatzea eta indartzea.

Sozietatearen organigraman jasotakoaren arabera, honako hauek dira deitutako lanpostuari dagozkion eginkizun nagusiak:

- Jendeari turismo arreta eta orientazioa ematea, aurrez aurre nahiz ez.
- Helmutzako kulturari eta baliabide praktikoei buruzko informazio turistikoa ematea.
- Hiriko eta lurraldeko produktu eta zerbitzu turistikoa sustatzea eta saltzea.
- Informazioa eguneratzea, bisitaria bikain orientatzeko.
- Bisitariak eskatzen dituzten turismo produktuei eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea.
- Informazio eta harrera zerbitzuaren ondoriozko administrazio kudeaketa.
- Gogobetetze inkestak eta bisitariak ahoz adierazitako gorabeherak jakinaraztea eta erregistratzea.
- Kexen eta erreklamazioen izapideak kudeatzea.
- Bisitak erregistratzea Turismo Bulegoen Euskal Sarearen (Itourbask) programan txostenak eta estatistikak egiteko.
- Biltegiaren kudeaketa administratiboa eskaerak izapidetzean eta materiala prestatzean.
- Bisita profesionalak eta hornitzaileak bulegoan hartzea.
- Behin-behineko edo praktiketako langileei laguntzea/babesa ematea, eskainitako zerbitzuen kalitate baldintzak bermatuz.
- Bisitariak hartzeko edozein bulegotan eta kongresuetan eta ekitaldietan gaitzen diren lekuetan zerbitzua ematea.
- Lanpostua betetzeko beharrezkoa den lanbide kualifikazioarekin bat datozen eginkizun guztiak.

Lanaldia astelehenetik igandera izango da, jaiegunak barne, txandakako egutegien arabera.

2024an esleitutako ordainsaria urteko 35.039,96 euro gordinekoa da (erreferentziako zenbatekoa, lanaldi osorako kalkulatua).

Eratzen den lan-poltza 2024ko ekainetik urrira bitarteko enplegu egonkorraren gorabeherak sortutako langile-beharrak betetzeko erabiliko da, eta aldi baterako kontratuak egingo dira beti.

Deialdia publikoa eta irekia da, eta langileak hautatzeko enpresa den OTEIC taldeak kudeatuko du hautaketa prozesua, dokumentu honetan jasotako baldintzei eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraiki.

## **BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK.**

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izango dute parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean ondoko baldintza baztertzaila hauek betetzen dituztenek:

- A) Espainian legezko bizilekua eta lan baimena izatea.
- B) 16 urte beteak izatea.
- C) Deitutako lanpostuetako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- D) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausa ez izatea.
- E) Ondoko baldintza hauen arabera eska daitezkeen titulazioak izatea edo haiek jasotzeko eskubideak ordainduak izatea:

E.1) **PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA:** Turismo informazio, laguntza eta merkaturatzearekin zerikusia duten espezialitateetako teknikariaren (erdi mailako prestakuntza zikloa) edo goi mailako teknikariaren (goi mailako prestakuntza zikloa) titulu ofiziala edo baliokidea izatea edo hura jasotzeko eskubideak ordainduak izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki behar da.

### **E.2) HIZKUNTZAK:**

- **Euskara:** B2 mailako euskararen ezagutzaren ziurtagiri ofiziala edo homologagarria izatea, edo, hala badagokio, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoa) aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria.
- **Ingelesa:** B2 mailako ingeles ezagutzaren ziurtagiri ofiziala edo homologagarria izatea.

Hautagaiak parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datarako bete behar dituzte baldintza horiek eta betetzen jarraitu lan kontratua sinatu arte.

Prozesuaren edozein unetan Hautaketa Batzordeak jakiten badu hautagaien batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, prozesutik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

## **HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA.**

**Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea 12 egun naturalekoa da, deialdi hau prentsan argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, zehazki, 2024ko apirilaren 29tik 2024ko maiatzaren 10a arte, biak barne.**

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) helbidean, kontratazio atalean, ([www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa](http://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa)) eskuragarri dagoen **Parte hartzeko Eskaera orria** behar bezala beteta, eta **bertan adierazi beharko da bigarren baldintzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela**, betiere parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunari begira.

Bigarren baldintzan eskatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa hautaketa prozesuaren 4. fasean eskatuko da egiaztatzeko, merezimenduen balorazioari buruzko dokumentazioarekin batera, adieraziko den moduan eta epearen arabera. Jatorrizkoa eta fotokopia bat ez etortzea hautaketa prozesutik kanpo uzteko arrazoi izan daiteke.

- b) **Curriculum Vitae eguneratua aurkeztuko da aipaturiko eskaera orriarekin batera.**

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko lekua edo bitartekoak:

- **Posta elektronikoaren bidez**, honako helbide honetan: [sansebastianturismoa@oteic.com](mailto:sansebastianturismoa@oteic.com)
- **Aurrez aurre** honako helbide honetan: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Erakina, 1. Solairua – 20018 Donostia. Aurrez aurre aurkezteko ordutegia 9:00etatik 18:00ak arte izango da, astelehenetik ostiralera (Oharra: urriaren 13an bulegoa itxita egongo da).
- Posta bulegoetan, honako helbide honetara zuzendutako **gutun ziurtatuaren bidez**: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Erakina, 1. Solairua – 20018 Donostia.

Behar ez bezala betetako/aurkeztutako eskaerak deialditik kanpo utzi ahal izango dira Hautaketa Batzordeak hala erabakitzen badu.

Adierazitako epean eta moduan aurkeztutako hautagaitzak bakarrik onartuko dira, eta baztertu egingo dira baldintza horiek betetzen ez dituzten guztiak.

## **LAUGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA.**

---

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaera horiek berrikusi egingo dira, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) helbidean argitaratuko da hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda, ukitutako pertsonak baztertzeko arrazoiak zehaztuta. Zerrenda hori maiatzaren 13an argitaratuko da, ziurrenik.

Baztertuta gelditu diren hautagaiek egokitzat hartzen dituzten erreklamazioak edo okerren zuzenketak egin ahal izango dituzte, 2 egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu den eguna barne hartuta, zerrendan bertan azaltzen den moduan.

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta bide beretik argitaratuko da hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda.

Edozein arrazoiengatik alegazioak ez badira ebatzi proben lehenengo jardunaldia baino lehen, hautagaiek proba horretan parte hartu ahal izango dute, baina baldintza etengarri batekin: alegazioaren ebazpenaren ondorioz beren hautagaitza azkenean onartzen bada soilik ebaluatuko da proba hori.

## **BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.**

---

**5.1** Horretarako, Hautaketa Batzorde bat eratuko da, Zuzendari Kudeatzaileak, Antolaketa eta Administrazioako arduradunak eta sozietateko langileen ordezkari batek osatua, hautaketa prozesua kudeatzeko eta, bereziki, aurkeztutako eskaerak baloratzeko, bai eta hautaketa prozesuko fase guztietan probak eta merezimenduak kalifikatzeko ere. Hautaketa Batzordeko kideren bat bertaratu ezin bada, haren ordezkoa izendatuko du Zuzendariak.

Hautaketa Batzordeak hautaketa prozesuen gardentasuna eta objektibotasuna zainduko ditu, bai eta proben konfidentzialtasuna eta deialdiaren oinarriak zorrotz beteko direla ere. Era berean, hautaketa prozesuak garatzean sortzen diren zalantzak argitzeko ahalmena izango du, bai eta horiek behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko ere, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, eta horietan aurreikusi ez diren kasuei dagokienez aintzat hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak beharreko neurriak hartuko ditu azterketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, eta parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla ziurtatzeko. Era berean, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko ditu.

Hautaketa Batzordeak aholkulariak edo enpresa espezializatuak sartu ahal izango ditu bere lanetan, egokitzat hartzen dituen kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskaerak jasotzea, probak diseinatzea, egikaritzea, eskaerak baloratzeta eta abar.

**5.2** Interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Hautaketa Batzordearen erabakien aurka, batzordeak horretarako ezarriko dituen epeen barruan eta kasu bakoitzean horretarako ezarriko den prozedurari jarraituz. Alegazioaldiak amaitu eta ebatzi ondoren, erabakiak behin betikoak izango dira.

**5.3** Honako fase hauek ditu hautaketa prozesuak:

- **1. FASEA: Ezagutzen analisia eta gaitasunen analisia:** Proba teorikoak eta/edo praktikoak egingo dira, San Sebastián Turismo – Donostia Turismoko erabiltzaileari eman beharreko Donostiaren destinoari buruzko informazio turistiko, kultural eta baliabideei buruzkoak, bereziki, bai eta Euskadi, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko intereseko beste herri batzuetakoei buruzkoak, enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzu turistikoiei buruzkoak eta lanpostuan bete beharreko kudeakera administratiboko beste eskakizun batzuei buruzkoak ere, eta hainbat proba psikotekniko egingo dira ere, hautagaiak lanposturako behar diren gaitasunak eta trebetasunak baloratzeko.

**Proba 2024ko maiatzaren 17an (ostirala) egitea aurreikusten da, arratsaldez. Hala ere, zazpigarren oinarrian adierazitako bitarteko ofizialaren bidez egingo da deialdi ofiziala.**

40 puntu izango ditu gehienez, eta gutxienez 20 puntu atera beharko dira Fase hau gainditzeko. Gainera hurrengo fasera puntuazio handiena lortzen duten 25 hautagaiak igaroko dira. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera dutenak sartuko dira.

Hala ere, Hautaketa Batzordeak ahalmena izango du, izenez identifikatu aurretik, gutxienez zein maila lortu behar den erabakitzeko, eta horrenbestez, azterketa gainditzeko beharreko puntuazioa murrizteko. Hori guztia, kontuan izanik azterketara aurkeztu den parte hartzaile kopurua, azterketaren zailtasuna eta aurreikusitako antolakuntza beharrak.

- **2. FASEA: Análisi pertsonala.** Elkarriketa pertsonalak eta beste proba pertsonal eta/edo talde proba batzuk egingo dira, hautagaia pertsonalki eta gaitasunei dagokienez eskatutako profilerak egokitzen den baloratzeko.

**40 puntu** izango ditu **gehienez, eta gutxienez 25 puntu atera beharko dira Fase hau gainditzeko.**

- **3. FASEA: Merezimenduen balorazioa: Gehienez ere 20 puntu** emango zaizkie ondoren ageri diren merezimenduei. Merezimendu horiek aldeztatik alegatu behar dira parte hartzeko eskaera orrian eta horretarako irekiko den moduan eta epean agiri bidez egiaztatuta beharko dira. Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren merezimenduen erreferentzia data. Merezimenduen baremo honen arabera emandako puntu batura izango da fase honen kalifikazioa:

- A)** Atzerriko hizkuntzak jakitea, gutxieneko betekizunaz gain, eta betiere ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatuta: 10 puntu emango dira gehienez, honako hauen arabera:
  - Frantsesa jakitea: 7 puntu gehienez
  - Ingelesa jakitea eskatzen dena baino maila handiagoan, edo atzerriko beste hizkuntza batzuk jakitea: 3 puntu gehienez.

- B)** Lan esperientzia antzeko eginkizunetan: 8 puntu emango dira gehienez. Kontuan hartuko da lanpostuaren edukietan eta erantzukizun mailan esperientzia berdina edo antzekoa izatea, zehazki, honako arlo hauetan: informazio turistikoa eta kulturala, produktu eta zerbitzu turistikoen salmenta eta sustapena eta/edo administrazio kudeaketa.

Hautaketa Batzordeari dagokio prestakuntza eta trebakuntza edukien nolakotasuna eta lanbide esperientzia baloratzea, lanpostu horretarako izan dezaketen onuraren arabera.

Hautaketa Batzordeak proportzionalki zenbatu ahal izango ditu urtebete baino gutxiagoko aldiak. Lanaldi partzialaren erregimeneko dedikazio denboraldiak daudenean, egiaz eskainitako dedikazio denborarekiko proportzionalki egingo da kontaketa.

- C)** Lanpostuarekin zerikusia duten beste titulazio akademiko batzuk: gehienez 2 puntu.

Hautaketa prozesua gainditzeko gutxieneko puntuazioa 45 puntukoa izango da, salbu eta, 1. eta 2. faseen definizioan aurreikusi bezala, Hautaketa Batzordeak eskatutako gutxieneko puntuazioa murriztea erabakitzen badu.

Hautaketa-batzordeak beretzat gordetzen du faseak eta probak egiteko ordena aldatzeko aukera, bai eta egun berean hainbat fase eta proba egiteko aukera zehazteko ere, bai eta prozesuaren martxa ikusita fase edo proba batzuk ezabatzeko aukera ere.

Azterketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie hautagaiei. Pertsona bat dei egin zaion unean ez bada edozein azterketara joaten, automatikoki galduko du azterketa horretan parte hartzeko eskubidea, eta horrenbestez, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, salbu eta behar bezala justifikatzen bada eta Hautaketa Batzordeak libreki balioesten badu.

Probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo zaizkie dibertsitate funtzionala duten pertsonari, egokitzapen berezirik behar badute, gainerako parte hartzaileek duten aukera berdintasuna izan dezaten, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

## **SEIGARRENA. LAN-POLTSAREN ERAKETA ETA KUDEAKETA.**

---

Hautaketa prozesuaren faseetan lortutako puntuazioen baturak erabakiko du behin betiko sailkapenaren ordena, eta horrek zehaztuko du lehentasun ordena.

Berdinketa gertatuz gero, hurrenez hurren aplikatzeko irizpide hauen arabera ezarriko da ordena, eta ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun klausula, deitutako lanpostuan emakumeek ez baitute ordezkari txikiagoa.

- 2. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
- 1. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.

Hautatutako pertsonak ezarritako epeetan hasiko dira lanpostuan, Sozietatearen egiazko antolamendu beharren arabera, aldi baterako lan kontratuaren bidez, eta haren araudiaren arabera arautuko dira. Aldez aurretik, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen diren betekizunak egiaztatu beharko dituzte, baldin eta hautaketa prozesuan zehar behar bezala egiaztatu ez badira edo prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei badagozkie, hala nola, ezgaitasun edo bateraezintasun egoerarik eza.

Kasu bakoitzean adierazitako epeen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo dokumentazioa aztertuta ikusten bada eskatutako baldintzetako bat ez dutela betetzen, edo dagozkien lanak egiteko eskatzen den gaitasuna ez dutela betetzen, ezin izango dute lan-poltsatik eratorritako kontraturik izenpetu, eta haien jarduera guztiak baliogabetuta geldituko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Deialdi honen ondorioz sortzen den Lan-Poltsa indarrean iraungo du 2024ko ekaina eta urria bitartean.

## **ZAZPIGARRENA. INFORMAZIOA ARGITARATZEA.**

---

Hautaketa prozesuaren garapenari buruzko informazio guztia [www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa](http://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa) helbidean argitaratuko da, jakinarazpen ondorioetarako.

## **ZORTZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.**

---

Parte hartzaileek beren eskaeretan emandako datu pertsonalak eta deialdi honen xede den prozesuan zehar ematen dituztenak SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa (erakunde horrek Donostian (Gipuzkoa) du egoitza, Boulevard, 8 zenbakian, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago 1.479. liburukian, 81. folioan, SS-9.471 orrian, eta A-2018884 IFZ zenbakia du), hautaketa prozesu horretan duten partaidetza kudeatzeko, eta hautagaiak berak eskatutako kontratu aurreko neurriak aplikatuta.

Era berean, hautagaitza aurkeztean, hautagaiak baimena ematen du, hautaketa prozesua gaindituz gero, oinarri hauen xede den Lan-Poltsan sartzeko baimena ematen du, halaber, bere datu pertsonalak baimen horretan oinarrituta tratatzeko.

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k Datuak Babesteko ordezkari bat (DBO) izendatu du, erakundeko pribatutasuna kudeatu eta kontrolatzeaz arduratuko dena, eta honako helbide elektronikoko honen bidez jar daiteke harekin harremanetan [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

SAN SEBASTIÁN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA, S.A.k hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa prozesu hau behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko gorde behar dituen epe gehigarrietan ere.

Deialdi honen xede den hautaketa prozesua publizitatearen printzipioak arautzen du, eta, beraz, zazpigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, bai eta parte hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere, eta NAN zenbakiaren bidez adieraziko da nortasuna.

Argitalpen hori alde batera utzita, interes publikoan oinarritutako datu komunikazioa baita, eta legeak hala aginduta (adibidez, epaileek, auzitegiek eta/edo agintari publikoek) nahitaezkoa den kasuetan izan ezik, parte hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio inori jakinaraziko. Era berean, ez da aurreikusi datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egitea.

Hautagaiek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuok beste norabait eramateko edo, bidezkoa denean, datuon tratamenduari aurka egiteko ere, [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus) helbidera zuzendutako idatzizko eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste edozein kontrol agintaritzaren eskudunetan, batez ere beren eskubideak erabiltzean gogobetarik gelditu ez direnean.

Donostian, 2024ko apirilaren 28an



Isabel Aguirrezabala Wurster  
Zuzendari Kudeatzailea